

**OINARRIZKO  
CURRICULUM DISEINUA**

**SUKALDARITZAKO**

**TEKNIKARIA**

## AURKIBIDEA

1. Tituluaren identifikazioa.....	4
1.1. Izena.....	4
1.2. Maila.....	4
1.3. Heziketa-zikloaren iraupena.....	4
2. Erreferentea (lanbide-perfila).....	4
2.1. Gaitasun orokorra.....	4
2.1.1. Lanbide-gaitasunak.....	4
2.1.2. Erantzukizuna eta autonomia.....	4
2.2. Lanbide-burutzapenak eta lanbide-portaerak.....	5
2.3. Produkzio-prozesuko kokapena.....	6
3. Irakaskuntzak.....	7
3.1. Heziketa-zikloaren helburu orokorrak.....	7
3.2. Lanbide-moduluak.....	8
1. Lanbide-modulua: Eskaintza gastronomikoak eta hornikuntza-sistemak.....	8
2. Lanbide-modulua: Elikagaien aurretiazko elaborazioa eta Kontserbazioa.....	13
3. Lanbide-modulua: Sukaldaritzako teknikoak.....	17
4. Lanbide-modulua: Gozogintza.....	21
5. Lanbide-modulua: Bezeroen aurrean edariak eta janariak prestatzeko Eta zerbitzatzeko oinarrizko teknikak.....	26
6. Lanbide-modulua: Sukaldaritzako elaborazioak eta produktuak.....	30
7. Lanbide-modulua: Administrazioa, kudeaketa eta merkaturatzea Enpresa txikietan.....	33
8. Lanbide-modulua: Atzerriko hizkuntza.....	37
9. Lanbide-modulua: Lan prestakuntza eta-orientabidea.....	40
10. Lanbide-modulua: Kalitatea eta etengabeko hobekuntza.....	43
11. Lanbide-modulua: Lantokiko prestakuntza.....	44
3.3. Heziketa-zikloaren sekuentziarioa eta denboralizazioa.....	46
3.3.1. Iraupenak.....	46
3.3.2. Sekuentziarioa.....	47
4. Irakasleak.....	48
4.1. “Sukaldaritzaren” heziketa-zikloko lanbide-moduluetan irakaskuntza-tribuzioa duten irakasleen espezialitateak.....	48
4.2. Titulazioen baliokidetasunak irakaskuntzan aritzeko.....	48
5. Irakaskuntzak emateko gutxieneko baldintzak.....	49
5.1. Espazioak.....	49

6. Konbalidazioak eta korrespondentziak.....	50
6.1. Lanerako Lanbide Heziketarekin konbalida daitezkeen lanbide-moduluak.....	50
6.2. Lan-praktikarekin korrespondentzia izan dezaketen lanbide-moduluak.....	50

## 1. Tituluaren identifikazioa

- 1.1. Izena: "Sukaldaritzza".
- 1.2. Maila: Erdi-mailako Berriazko Lanbide Heziketa.
- 1.3. Iraupena: 2.000 ordu.

## 2. Erreferentea (lanbide-perfila)

### 2.1. Gaitasun orokorra

- Elikagai-mota guztiak maneiatzeko, prestatzeko, mantentzeko eta aurkezteko eragiketa guztiak egitea; eskaintza gastronomikoak prestatzea eta zerbitzu-jardueretan laguntzea, ezarritako kalitatea eta helburu ekonomikoak lortuz eta uneoro segurtasun eta higienari buruzko arautegia eta praktikak aplikatuz.

#### 2.1.1. Lanbide-gaitasunak

- Edozein motako janariak eta alkoholik gabeko edariak elaboratzea jatetxe-arloko edozein establezimendu, eremu edo departamentutan, egoera desberdinetara egokituz.
- Norberaren ikerketan oinarritutako platerak elaboratzea, bere buruaren ekimena eta sormena eta inprobisatzeko gaitasuna garatuz.
- "Buffet", "self-service" edo antzeko zerbitzuak antolatzea.
- Platera edo edaria bezeroaren aurrean prestatzen denean edo zerbitzu-jardueretan laguntzen denean zerbitzua dotoreziaz eta zehaztasun handiz garatzea.
- Eskaintza gastronomikoen plangintza egitea edo hauek elaboratzea jantokiko langileekin batera, bezeroak espero duena betez eta establezimenduaren, eremuaren edo departamentuaren helburu ekonomikoak aseaz.
- Elikagai eta edarien kontsumoaren hornikuntza eta kontrola zorrotzasun, ordena eta zintzotasunez egitea eta errentagarritasun ekonomikoaren zentzua izatea.
- Sukaldaritzako instalazioak, ekipoak, produktuak eta prestakuntzak segurtasun eta higienaren neurri zorrotzenak kontuan izanik mantentzea, egokitzea eta erabiltzea, erantzukizunaren zentzu handia adieraziz.
- Orokorrean, Sukaldaritzako Teknikariak funtzio guztiak arreta, garbitasun eta trebetasun handienak erabiliz egin behar ditu, bere zentzu artistikoa osotasunean garatuz. Era berean, sektorean indarrean dauden segurtasunaren eta higie eta osasunaren esparruko arauak errespetatu beharko ditu.
- Jatetxe-arloko enpresa txiki bat administratzea eta kudeatzea eta, eragiten dioten legezko betebeharrak kontuan izanik, produktuak merkaturatzea.
- Parte hartzen duen prozesuko faseen ikuspegi koordinatua eta orokorra izatea.
- Sukaldaritzako prozesuen barnean lanpostu desberdinetara egokitzea eta baita bere lanbidearekin erlazionatutako teknikan gertatutako aldaketan ondorioz sortutako lan-egoera berrietara ere.
- Partaide den talde funtzionalaren kideekin harreman naturalak izatea, taldeari ezarritako helburuak lortzeko zereginetan parte hartuz, besteen lana errespetatuz, lan kolektiboen antolamenduan eta garapenean aktiboki parte hartuz, sor daitezkeen zailtasunak gainditzeko laguntza eskainiz eta horretarako bere lankideen eta menpekoen ideien jarrera tolerantzia adieraziz.
- Eduki politekniko eta polifuntzionala duten ekintza-multzo bat egitea autonomiaz, bere lanbidearen berezko tekniken esparruaren barnean eta ezarritako metodoak kontuan edukita.

#### 2.1.2. Erantzukizuna eta autonomia

Teknikari honi, goragoko maila duten teknikariek esleitutako funtzioen eta helburuen esparruan eta dagozkion lanerako arloetan, oro har, ondoko autonomia-gaitasunak eskatuko zaizkio:

- Elikagaien maneian, biltegitratzean eta kontserbazioan.
- Sukaldaritzako prestakuntza desberdinen eta alkoholik gabeko edarien elaborazioan.

- Pastelgintzako eta gozogintzako produktu nagusien elaborazioan.
- “Buffet”, “self-service” eta antzekoen zerbitzu errazen antolaketan.
- Lanerako ekipo eta tresnen garbiketan.
- Establezimendu txiki eta erdi-mailakoetan, sukaldeko bururik ez dagoenean edo sukaldeko burua bera denean, eskaintza gastronomikoak prestatzeko zereginean.

## 2.2. Lanbide-burutzapenak eta lanbide-portaerak

Ondokoak dira profesionalak burutu eta/edo azaldu behar dituen burutzapen eta portaera esanguratsuenak:

### 1. *Eskaintza gastronomikoak elaboratzea, hornikuntza egitea eta kontsumoak kontrolatzea.*

- Eskaintza gastronomikoak egitea menu, karta nahiz antzekoen bidez eta horiek bezeroentzat erakargarriak, orekatuak eta egokiak izan behar dutela kontuan izatea.
- Lehengaien kalitatearen maila zehaztea, eskainitako produktuak bezeroak espero duen kalitate-maila izan dezan eta establezimenduak dituen helburu ekonomikoak bete ditzan.
- Produkzioaren eskaerak asetzeko beharrezkoak diren salgaiak eskatzea.
- Eskatutako artikuluak jasotzea, erosketa-eskaerari eta kalitatearen estandarrari erantzuten diotela egiaztatuz.
- Jasotako salgaiak biltegian gordetzea, erabiltzeko ordura arte egoera onean mantentzea.
- Ezarritako arauen arabera kontsumoak kontrolatzea, erabilitako edarien eta elikagaien kostuak zehaztu ahal izateko.

### 2. *Elikagai gordinak maneiatzea eta elikagai-mota guztiak kontserbatzea*

- Barazkiak prestatzea eta biltegitzea, plater desberdinak egiteko edo beranduago merkaturatzeko erabiltzeko egokiak izan daitezten.
- Arrainak, itsaskiak, hegaztiak eta ehiza prestatzea eta gordinik biltegitzea, plater desberdinak egiteko edo beranduago merkaturatzeko erabiltzeko egokiak izan daitezten.
- Haragia zatitzea eta zati gordinak prestatu eta biltegitzea, plater desberdinak egiteko edo beranduago merkaturatzeko erabiltzeko egokiak izan daitezten.
- Sukaldaritzako jenero edo elaborazioak kontserbatzea eta/edo ontziratzea kontsumorako edo merkatuan banatzeko egokiak izan daitezten.

### 3. *Oinarrizko elaborazioak eta plater errazak prestatzea eta aurkeztea*

- Aplikazio ugari izango duten oinarrizko elaborazioak egitea, platerak elaboratzeko edo hauen osagarri gisa erabili ahal izateko.
- Sukaldaritzako oinarrizko prestakuntzak egitea eta aurkeztea, produktuaren definizioarekin eta elaboratzeko oinarrizko teknikekin bat etorritik.

### 4. *Pastelgintzako eta gozogintzako produktuak prestatzea eta aurkeztea*

- Elaboraziorako oinarrizko teknikak erabiliz oreak eta pastak elaboratzea, gero plater zehatzak eta pastelgintzako produktuak prestatzeko egokiak izan daitezten.
- Produktuaren definizioaren eta/edo elaboraziorako oinarrizko tekniken arabera, pastelgintzako oinarrizko produktuak prestatzea eta aurkeztea, hala nola ogiak, opilak, tartak, pastelak, pastak eta pastelgintza gazia.
- Sukaldaritzako izozkiak eta postreak egitea eta aurkeztea, produktuaren definizioarekin eta elaboratzeko oinarrizko teknikekin bat etorritik.

### 5. *“Buffet”, “self-service” edo antzeko zerbitzuak antolatzea, bezeroaren aurrean janariak eta edariak prestatzea eta zerbitzu-jardueretan laguntzea*

- Zehaztutako arauen arabera, “buffet”, “self-service” edo antzeko zerbitzuetarako ekipoak, altzariak eta tresneria muntatzea eta prest jartzea.

- Mahaiak zerbitzatzen eta jatetxeko formula zehatzetan laguntzea eta janariak eta edariak zerbitzatzea aurrez zehaztutako arauen arabera.
- Bezeroaren aurrean platerak prestatzea, produktuaren definizioarekin eta elaboratzeko oinarrizko teknikekin bat etorritik.
- Bezeroaren aurrean edozein janari-mota maneiatzea (zuritzea, hezurak kentzea, zatikatzea eta platerera ateratzea), produktuaren definizioarekin eta elaboratzeko oinarrizko teknikekin bat etorritik.
- Kafea, txokolata, izotz-edaria, irabiakia, zukuak, infusioak eta alkoholik gabeko beste edari batzuk prestatzea eta, beharrezkoa denean, aurkeztea, bezeroari zerbitzatzeko moduan egon daitezen edo sukaldaritzako elaborazio desberdinak prestatzeko egokiak izan daitezen.

#### *6. Eskualdeko, nazioko eta nazioarteko sukaldaritzako nahiz sormenezko sukaldaritzako plater-mota desberdinak prestatzea eta aurkeztea*

- Eskualdeko, nazioko eta nazioarteko pater berezienak prestatzea eta aurkeztea, produktuaren definizioarekin eta elaboratzeko oinarrizko teknikekin bat etorritik eta kalitate-estandar handia mantenduz.
- Bere sormenean oinarritutako eta bezeroentzat erakargarriak izango diren eta establezimenduko helburu ekonomikoetara egokituko diren platerak prestatzea eta aurkeztea.

#### *7. Enpresa edo lantegi txiki bateko administrazio-, kudeaketa- eta merkaturatze-lanak egitea*

- Enpresa edo lantegi txiki bat ezartzeko aukera ebaluatzea, bere jarduera, negozioaren bolumena eta helburuak kontuan izanik.
- Enpresa txikiaren neurriaren, jardueraren eta helburuen arabera, kontratazio-modu egokienak zehaztea.
- Enpresa txiki bat eratzeko beharrezkoa den eta honen ekonomi jardueraren garapenak sortutako dokumentazioa elaboratzea, kudeatzea eta antolatzea.
- Produktu edo zerbitzuen salmenta bultzatzea baliabide edo erlazio egokien bitartez eta eskatutako merkataritzako jardueraren arabera.
- Hornitzaile eta bezeroekin negoziatzea, merkataritzako eragiketetan baldintza onuragarrienak bilatuz.
- Bezero errealekin edo potentzialekin harreman onak sortzea, garatzea eta mantentzea.
- Enpresa baten legezko betebeharratik ondorioztatutako ekintzak, denborari nahiz moduari dagozkionak, identifikatzea.

### 2.3. Produksio-prozesuko kokapena

- Lanbide- eta lan-ingurunea

Irudi honek, nagusiki, “Ostalaritza eta jatetxe-arloa” sektoreko elikagaien eta edarien elaborazioaren esparruan beteko du bere jarduera, baina nekazaritzako elikagaien industriaren sektorean eta elikagaiak eta edariak saltzen dituzten establezimenduetan ere lan egin ahal izango du.

Bere jarduera ondoko azpisektoreetan garatu ahal izango du nagusiki:

- Merkataritzako sukaldaritza:
  - Tradizionala: mahaiak zerbitzatzeko arau klasikoak erabiltzen dituzten jatetxeak dira; horretaz gain, normalean jaso aurretik inolako maneirik jasan ez duten produktu freskoak erabiltzen dituzte. Esate baterako, luxuzko jatetxeak, merkatu-jatetxeak, sukaldaritza tradizionala edo nazioartekoa lantzen dutenak, etab.
  - Eboluziozko sukaldaritza: zerbitzu azkarra eskaintzen du, erdilandutako produktuak edo bitartekoak eta teknologia berriak erabiltzen ditu. “Snack” delakoak, pizzeriak, hanburgesategiak, prestatutako janariak, etab.
- Tabernak eta kafetegiak.
- Sukaldaritza kolektiboa, enpresei, ikastetxeei, ospitaleei eta “catering” moduko garraiabideei elikagaiak eta edariak zerbitzatzera zuzendua.
- Gozodendak.

- Harategiak, urdaitegiak, arrandegiak, itsaskitegiak, fruta-dendak eta barazki-dendak.
- Prestatutako janarietan espezializatutako dendak.
- Elikadura-produktuen biltegiatze-, ontziratze- eta banaketa-lanak egiten dituzten enpresak.
- Nekazaritzako elikagaien industriak.

Teknikari hau lan-ekipo kopurutsu batean sartuko da ziurrenik eta horrek bere lankideekin lan egiteko garaian lankidetzaren zentzu handia izatea eskatuko du. Orokorrean, elikagaien eta edarien elaboraziora eta/edo zerbitzura zuzendutako establezimendu txikietan, erdi-mailakoetan edo handietan garatuko du bere jardura; horiek eskaintza zabalago baten zati izan daitezke: ostatu turistikoak eta ez-turistikoak, diskotekak, zorizko jokoetarako establezimenduak, aisialdirako bestelako establezimenduak etab.

Era berean, oso irudi egokia da autoenplegurako, bere taberna, kafetegia edo jatetxea jartzeko aukera izango baitu.

Sukaldeetan askotan gertatu ohi diren lan-baldintza zailak, bestelako baldintzak (bero izugarria, zutik egin beharreko lanak, erredurak, eta abar) eta sukaldaritzako plater egokiak lortzeko beharrezkoa den etengabeko arretak, teknikariari lasaitasunez jokatzeko beharra eta egoera zail horietara egokitzea eskatzen diote.

- Ingurune funtzionala eta teknologikoa

Irudi profesional hau erosketen edo kontratazioen, elikagaien eta edarien elaborazioaren eta/edo zerbitzuaren eta kontsumoen kontrolen funtzio/azpifuntzioetan kokatzen da batez ere.

Teknikak eta ezagupen teknologikoak honakoak dira:

- Eskaintza gastronomikoen definizioa.
- Hornikuntza eta kontsumoen kontrola.
- Elikagaien eta edarien maneia eta transformazioa, horretarako jatetxe eta tabernako ekipo bereziak erabiliz.
- Lehengaien, ekipoen eta makineriaren ezagutza.
- Bezeroarenganako arreta.
- Lanbideak, ereduzko lanposturik garrantzitsuenak

Lanbide-orientazioko helburua izanik, ondoren, tituluaren perfilean definitutako lanbide-gaitasuna eskuratu ondoren bete daitezkeen lanbideak eta lanpostuak aipatzen dira:

- Edozein motako establezimendu eta/edo ostatuko sukaldaria.
- Partida-burua.
- Hotel, jatetxe, ospitale, kolektibotasunen enpresa eta abarren ekonomatu eta sotoko departamentuko langilea.

### **3. Irakaskuntzak**

#### **3.1. Heziketa-zikloaren helburu orokorrak.**

- I. Eskaintza gastronomikoen prestakuntzan eragina duten aldagai desberdinak interpretatzea eta batzea, kalitatea, oreka dietetikoa, era askotako osaketak eta ezarritako helburu ekonomikoak lortu ahal izateko.
- II. Produkzio-prozesuak aztertzea eta prest jartzea eta, behar izanez gero, jatetxe-arloko zerbitzukoak ere bai, terminologia, sinbologia, informazio teknikoak, prozedurak eta metodoak interpretatuz eta fase eta oinarriko prozesu desberdinekin erlazionatuz, beharrezkoak diren kalitate- eta errendimendu-mailak lortu ahal izateko.
- III. Sukaldaritzako eta pastelgintza eta okintzako elaborazioak egiteko beharrezkoak diren eragiketak aztertzea eta egitea; era berean, elaborazioaren akabera eta dekorazioa egiteko beharrezkoak direnak aztertzea eta exekutzea, sukaldaritzako, pastelgintzako eta gozogintzako ekipoak, makineria eta tresneria identifikatuz, modu egokian erabiliz eta ondo zainduz.
- IV. Jeneroen eta sukaldaritzako elaborazioen hornikuntza eta kontserbaziorako beharrezkoak diren eragiketak interpretatzea, aztertzea eta egitea.
- V. Merkataritzako eta nutrizioari buruzko ezaugarriak identifikatzea eta interpretatzea, ezaugarri horiek elaboratzeko aukerekin lotzea eta beharko diren kantitateak kalkulatzeko, oinarriko lehengaien elaborazio- edo produktu-motaren arabera.
- VI. “Buffet”, “self-service” edo antzeko zerbitzuak muntatzeko beharrezkoak diren lanak interpretatzea, aztertzea eta egitea.
- VII. Uneoro segurtasunari eta higienerari buruzko arauak aplikatzea eta elikadura-toxiinfekzioaren esparruko arriskuak identifikatzea eta aurreikustea.
- VIII. Informatika bere lanbide-jarduerara aplikatuta erabiltzea, sukaldearen eta ekonomatu eta sotoaren departamentuen informaziorako, komunikaziorako eta kudeaketarako.
- IX. Ostalaritzako azpisektoreko lanbide-jarduerak arautzen eta baldintzatzen dituen esparru legala, ekonomikoa eta antolamenduzkoa ulertzea, lan-harremanetatik sortutako eskubide eta betebeharrak identifikatuz eta ezarritako prozedurak jarraitzeko eta berorietan sor daitezkeen arazoetan eraginkortasunez jokatzeko gaitasuna bereganatuz.
- X. Ahozko, idatzizko eta keinuen bidezko komunikazio eraginkorra ezartzea informazio zuzena transmititzeko eta jasotzeko eta egoera gatazkatsuak konpontzeko, lanaren esparruko harremanetan nahiz bezero potentzialekin gara daitezkeenetan.
- XI. Ostalaritza eta Turismo sektorearen ezagutza eta sektore horretan sartzea ahalbidetuko duten lanbidearekin erlazionatutako informazioaren eta prestakuntzaren esparruko bideak erabiltzea eta bilatzea; bestalde, bere lanbide-gaitasunen bilakaera eta egokitzapena, bere bizitza aktiboan gertatuko diren aldaketa teknologikoei eta antolamenduari dagozkienez.
- XII. Eremu honetan garatu beharreko prozesuei irtenbideak ezartzen laguntzea eta zeregin horretan parte hartzea, ingurumenean eragin negatiboa izan ez dezaten; era berean, prozesuetako kalitatearen etengabeko hobekuntzan parte hartzea bere lanbide-jardunaren bidez.

## 3.2. Lanbide-moduluak

### 1. lanbide-modulua. ESKAINTZA GASTRONOMIKOAK ETA HORNIKUNTZA-SISTEMAK

#### a) Amaierako gaitasunak

Lanbide-modulu hau amaitzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

1. Jatetxe-arloko eta okintzako eta pastelgintzako artisau-industrietako azpisektoreak aztertzea, hauek beste enpresa edo esparru batzuekin dituzten harremanak kontuan hartuz.
2. Menu edo kartetako eskaintza gastronomikoak aztertzea eta, era berean, pastelgintzako, gozogintzako, okintzako eta antzeko produktuen eskaintzak aztertzea.
3. Eskaintza gastronomiko zehatzak kontuan hartuz, janari eta edari bereziak prestatzea.
4. Eskaintza gastronomiko zehatzekin lotutako jeneroen kanpo-hornikuntzaren beharrak kalkulatzeko eta eskaera-aginduak idaztea.
5. Janariak eta edariak jasotzea eta gero biltegiratu eta/edo banatzea.
6. Janariak eta edariak biltegiratzeko sistemak aztertzea eta, beharrezkoa denean, zeregin edo eragiketa horiek egitea.
7. Lehengaien kostuak kalkulatzeko eta horiekin lotutako eskaintza gastronomikoek izan ditzaketen prezioak balioztatzea.

## b) Ebaluazio-irizpideak

1. Jatetxe-arloko eta okintzako eta pastelgintzako artisau-industrietako azpisektoreak aztertzean, hauek beste enpresa edo esparru batzuekin dituzten harremanak kontuan hartuz, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Azpisektorea osatzen duten establezimendu-mota eta jatetxe-arloko eta okintzako eta pastelgintzako artisau-industrietako formula desberdinak deskribatzea, ondorengoak azalduz:
  - Oinarrizko ezaugarriak.
  - Oinarrizko prozesuak eta eskaintzen diren zerbitzuak.
  - Eskaintza gastronomikoen edo elaboratutako produktuen motak.
- Azpisektorearen sailkapenean aplikatu daitezkeen Europako, Estatuako eta Erkidegoko arautegia azaltzeko.
- Bere jardueraren arautegiaren eta/edo ezaugarrien arabera, establezimendu-mota eta jatetxe-arloko eta okintzako eta pastelgintzako artisau-industrietako formula desberdinak sailkatzea.
- Izan daitezkeen bezeroak deskribatzea, espero dutenaren eta dituzten beharren arabera sailkatuz.
- Janarien eta edarien eta okintzako eta pastelgintzako artisau-industrien establezimenduetako edo produkzio- eta/edo zerbitzu-eremuetako departamentu eta azpidepartamentu funtzional berezienak deskribatzea, euren funtzioak eta departamentuen arteko barne-harremanak azalduz.
- Ostatu turistiko eta ez-turistikoetan, beste enpresa batzuekin edo beste area edo departamentu batzuekin dituzten kanpo-harremanak deskribatzea.
- Produkzio-jardueren eta/edo zerbitzu-jardueren garapenean sortzen diren barneko nahiz kanpoko zirkuituak eta informazio- edo dokumentazio-motak deskribatzea.

2. Menu edo kartetako eskaintza gastronomikoak aztertzean eta, era berean, pastelgintzako, gozogintzako, okintzako eta antzeko produktuen eskaintzak aztertzean ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Elikagai-taldeak adieraztea, hauen ekarpen nutritiboak azalduz.
- Nutrizioari buruzko oinarrizko erantzunak edo eskaini ohi diren dietak eta hauek betetzen dituzten beharrak azaltzea.
- Eskaintza gastronomikoak deskribatzea, hauek osatzen dituzten elementuak, ezaugarriak eta sukaldaritzako sailkapena adieraziz.
- Eskaintza gastronomikoak ostalaritzako establezimendu desberdinetako jatetxe-arloko formulekin edo pastelgintzako/okintzako industriekin erlazionatzea, indarrean dagoen legeria jarraituz.
- Eskaintza gastronomikoak bezero-motekin erlazionatzea, hauek espero dutenaren arabera.
- Suposizio-egoera praktikoetan, ondo definitutako ezaugarriak dituen establezimendu zehatz batean oinarrituz eta beharrezko datu guztiak eman ondoren:
  - Izan daitezkeen bezeroen eskaerei erantzungo dieten eskaintza gastronomikoak egiteko kontuan izan beharko diren izaera dietetikoak, ekonomikoak eta barietateari edo gustuari buruzko beharretatik eratorritako aldagaiak identifikatzea eta aztertzea.
  - Menuak, kartak eta bestelako eskaintza gastronomikoak osatzea beren kategoria, zerbitzu-mota eta jasotako aginduen arabera aurkeztuz eta, zailtasunaren arabera, hauek osatzeko eskura ditugun baliabideak eta ekipoak erabiltzea.
  - Osaketa menuen, karten edo modu berean egokituko diren bestelako eskaintza gastronomikoen bidez egiaztatzea.
  - Aukeratutako aldagaien arabera justifikatutako alternatibak proposatzea.

3. Eskaintza gastronomiko zehatzak kontuan hartuz janari eta edari bereziak prestatzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Jeneroaren fitxa tekniko baten oinarrizko atalak deskribatzea, nola bete behar diren azalduz.
- Suposizio-egoera batean parte hartzen duten lehengaien behar kuantitatiboak eta kualitatiboak ondorioztatzea.

- Erabiliko diren jeneroen kalitate-mailak zehaztea, horretarako, oinarritzko aldagai gisa, eskaintzaren kategoria, zerbitzu-mota, helburu ekonomikoak, hornitzaileak eta, hala dagokionean, pastelgintzako edo okintzako industria-mota kontuan hartuz.
- Erabiliko diren jeneroen espezifikazio teknikorako fitxak egitea, horretarako dauden ofimatikako baliabideak eta ekipoak modu eraginkorrean erabiliz.
- Jeneroen kalitate-maila zehazteko alternatibak justifikatzea urtaroaren, hornikuntzaren edo aldagai ekonomikoen arabera.

4. Eskaintza gastronomiko zehatzekin lotutako jeneroen kanpo-hornikuntzaren beharrak kalkulatzeko eta eskaera-aginduak idaztean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Jeneroak eskatzeko agindu esanguratsuen oinarritzko atalak deskribatzea, nola bete behar diren azalduz.
- Departamentuan sortzen diren dokumentazioaren eta eragiketen zirkuituak edo erosketen erabakiak eta beste departamentu batzuekin dauden erlazioak deskribatzea.
- Hartutako erabakiaren eta fitxa teknikoaren arabera, hornikuntzarako eskaerak egiteko dokumentu-baliabideak eta komunikaziorako tresnak identifikatzea.
- Hornikuntzarako eskaerak edo kanpotik nahiz, hala behar duenean, barneko beste departamenturen batetik, zerbait erosteko eskaera-agindua egitea, baliabide egokiak erabiliz eta suposizio-egoera edo eskaintza zehatzen arabera.
- Jeneroen beharra kalkulatzeko eta hornikuntzarako eskaerak gauzatzea, eskura dauden bulegoko baliabideak eta ekipoak modu eraginkorrean erabiltzeko.
- Egindako kantitateen zehaztapena eta eskaera-tresnaren aukeraketa justifikatzeko, suposizio-egoera edo eskaintza zehatzaren arabera.

5. Janariak eta edariak jasotzean eta gero biltegitatu eta/edo banatzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Sukaldaritzako jenero eta produktuak jasotzeko eta kontrolatzeko metodoak deskribatzea, hauen egoera edo izaera eta destinoaren arabera, produktuak jasotzeko eta kontrolatzeko beharrezkoak diren tresnak, baliabideak eta prozesua identifikatuz.
- Sukaldaritzako jenero eta produktuen kalitateari buruzko ezaugarriak identifikatzea, ekarri ohi dituzten etiketak eta dokumentazioa identifikatuz.
- Sukaldaritzako jeneroak eta produktuak jasotzeko eta kontrolatzeko erabiltzen diren oinarritzko ekipoak eta tresnak erabiltzea, ondorengoak azalduz: osagaiak, erabilera eta mantentzea.
- Jeneroak jasotzeko eta kontrolatzeko oinarritzko ekipoak eta tresnak erabiltzea, erabilera-arauak eta emandako aginduak kontuan izanik.
- Jasotzeko eta kontrolatzeko eragiketak egitea, eskatutako eta jasotako jeneroen arteko kantitate eta kalitateen desbideratzeak antzemanaz eta informazio hori bideratuz.
- Osasun eta higienari buruzko arautegiarekin bat etorritik, jasotzeko eta kontrolatzeko ekipoak eta biltegitatzeko edo berehala kontsumitzeko jeneroak modu egokian maneiatzea.

6. Janariak eta edariak biltegitatzeko sistemak aztertzean eta, beharrezkoa denean, zeregin edo eragiketa horiek egitean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Produzio-unitateetan eta/edo elikagai eta edarien zerbitzukoetan biltegitatzeko oinarritzko tokiak sailkatzea, berorien helburuak, erabilerak eta mantentzea deskribatuz.
- Biltegitatzeko hainbat sistema deskribatzea, ekipamenduaren esparruko beharrak, antolaketa-irizpideak, abantaila konparatiboak eta dagokion dokumentazioa adieraziz.
- Biltegiaren kontrolerako beharrezkoak diren dokumentazioa eta/edo liburuak deskribatzea.
- Elikagaiak eta edariak biltegitatzeko beharrak identifikatzea berorien izaeraren eta motaren arabera.
- Elikagaiak eta edariak biltegitatzeko beharrak eta kontserbazio egokia lortzeko tokiak erlazionatzea.
- Elikagaiak eta edariak tokiaren, neurriaren, ekipamenduaren eta ezarritako sistemaren arabera antolatzea, higienari eta osasunari buruzko arautegia eta iraungitze-datak zorrotzasunez aplikatuz.

- Elikagaien eta edarien entregak egitea, ezarritako irizpideen eta beharrezko dokumentazioaren arabera.
- Biltegitratzeko garaian jeneroen narriadurak edo galerak detektatzea, jenero horiek kenduz eta establezimendu-mota desberdinetan informatu beharko diren departamentuak adieraziz.
- Departamentuko eragiketa konplexuetan eta urtaroko eragiketetan (inbentarioa adibidez) zeregin batzuk pertsona batzuei ematea justifikatzea, emaitzaren koordinazioa eta oreka baloratuz.
- Produktuak suntsitzeari irtenbideren bat bilatzea, ingurumena zaintzeko asmoz.

7. Lehengaien kostuak kalkulatzeko eta horiekin lotutako eskaintza gastronomikoek izan ditzaketen prezioak balioztatzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Eskaintza gastronomikoetarako kostu-fitxen oinarritzko atalak deskribatzea, nola bete behar diren azalduz.
- Prezioen aurrekontuak eta zehaztapenak egiteko metodoak deskribatzea lehengaien kostuen arabera.
- Lehengaien kostuak kalkulatzeko beharrezkoak diren baliabide dokumentalak eta tresnak identifikatzea, nola bete eta erabili behar diren azalduz.
- Lan egiteko eskura dauden bulegoko oinarritzko baliabideak eta ekipoak modu eraginkorren erabiltzea.
- Dokumentazioa betetzea eta lehengaien kostuak lortzea finkatutako suposizio batean.
- Eskaintza gastronomikoaren prezioak finkatzea, ezarritako irizpideen arabera eta emandako suposizio-egoera batean.
- Finkatutako prezioaren alternatibak justifikatzea bezero-motaren arabera eta ostalaritzako establezimenduen nahiz garrantzitsuak izan daitezkeen bestelako oinarritzko helburuen arabera.
- Analisisirako eta kalkuluak egiteko prozedurak zorrotasunez aplikatzea, egin beharreko egiaztapenak eginez.

c) Edukiak

## I. multzoa: ESKAINTZA GASTRONOMIKOEN KARAKTERIZAZIOA ETA ZEHAZTAPENA

Prozedurazkoak:

- Eskaintza gastronomikoen karakterizazioa eta zehaztapena:
  - Beharrezkoak diren ondorengo aldagai dietetikoak, ekonomikoak, kategoriari buruzkoak eta abarren identifikazioa, egon daitezkeen bezeroen eskaerei erantzun dieten eskaintza gastronomikoak egiteko.
  - Eskaintza gastronomikoen eta jatetxe-arloko formulen arteko erlazioak lortzea.
  - Eskaintza gastronomikoen eta izan daitezkeen bezeroen arteko erlazioak lortzea, azken horien oinarritzko eskaeren arabera.
  - Hartutako erabakiaren justifikazioa aztertutako aldagaien bidez.
  - Menuak, kartak edo bestelako eskaintza gastronomikoak egitea.
  - Alternatibaren proposamena, aztertutako aldagaien arabera justifikatuz.
- Kostuak kalkulatzeko eta prezioak ezartzea:
  - Kostuak kalkulatzeko beharrezkoak diren baliabide dokumentalen eta tresnen identifikazioa.
  - Kostuak kalkulatzeko eta aurrekontuak egiteko baliabideen eta tresnen erabilera.
  - Eskaintza gastronomikoen aurrekontuak egiteko beharrezkoak diren kostuen dokumentuak edo fitxak betetzea.
  - Prezioak zehazteko sistemen aplikazioa.
  - Prezioaren aldaketan justifikazioa aztertutako aldagaien arabera.

Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Jatetxe-arloko enpresak: alderdi ekonomikoak. Funtzioak. Establezimendu-motak eta jatetxe-arloko formulak. Antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko egitura. Barne-harremanak.
- Jatetxe-arloko kalitatea: zerbitzuaren kalitatea zehazten duten alderdiak.
- Okintzako eta pastalgintzako artisauei buruzko industria: alderdi ekonomikoak. Establezimendu-motak. Produktuen oinarritzko eskaintza. Antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko egitura.

- Europako, Estatuko eta Erkidegoko jatetxe-arloko establezimenduei buruzko arautegia. Oinarrizko sailkapenak.
- Jatetxe-arloko bezeroen azterketa: motak. Beharrak eta itxaropenak.
- Eskaintza gastronomikoak: kontzeptua eta motak. Eskaintzen definizioan parte hartzen duten elementuak eta aldagaiak. Oinarrizko eskaintzen azterketa: menua eta karta.
- Elikadura: berehalako printzipioak. Elikagai-multzoak. Nutrizioari buruzko oinarrizko beharrak. Erantzun edo dieta esanguratsuen azterketa.
- Aurrekontuak egiteko metodoak. Prezioen zehaztapena: osagaiak. Kostuen fitxak: oinarrizko atalak. Motak. Betetzeko moduak.

#### Jarrerazkoak:

- Ostalaritzaren esparruan ezarritako prozeduren eta arauen errespetua:
  - Higienearen arauak kontuan izanik (norberaren garbitasuna, lanerako jantziak etab.), norberaren itxura zaintzea.
  - Puntueltasuna ordutegian.
  - Arauen errespetua talde-lanean integratuz.
- Ordena eta zorrotasuna lanean:
  - Ardura ematen dizkieten aginduetan, hauen interpretazioan nahiz exekuzioan.
  - Egiten duen lanean erantzukizuna izatea uneoro.
  - Lanaren garapenean kalitatea zaintzeko konpromisoa.
  - Ekimena eta izaera kritikoa aldagaien ekarpenean.
  - Sektorean joerak behatzeko eta bere taldearen informazioa biltzeko interesa.

## II. multzoa: JENEROEN HORNIKUNTZA OSTALARITZAREN ESPARRUAN

#### Prozedurazkoak:

- Jeneroen espezifikaziorako fitxen elaborazioa:
  - Lehengaien behar kuantitatibo eta kualitatiboak ondorioztatzea.
  - Erabiliko diren lehengaien kalitate-mailak zehaztea. Lehengaien espezifikaziorako fitxak betetzea.
  - Hartutako erabakien alternatiben justifikazioa.
- Eskaren zehaztapena eta eskaeretan parte hartzea:
  - Jeneroen hornikuntzari buruzko beharren zehaztapena.
  - Eskaerak egiteko baliabide dokumentalen eta komunikaziorako tresnen identifikazioa.
  - Hornikuntzako eskaerak betetzea.
  - Eskaerak betetzeko baliabideak eta tresnak modu eraginkorrean erabiltzea.
  - Egindako eskaeren justifikazioa.

#### Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Jeneroen espezifikaziorako fitxak: oinarrizko atalak. Betetzeko moduak.
- Erosketak egiteko funtzioa: departamentuen arteko zirkuituak eta harremanak. Erosketen eskaera-aginduak: oinarrizko atalak. Betetzeko moduak.

#### Jarrerazkoak:

- Ostalaritzaren eremuan ezarritako prozeduren eta arauen errespetua:
  - Higienearen arauak kontuan izanik (norberaren garbitasuna, lanerako jantziak etab.), norberaren itxura zaintzea.
  - Puntueltasuna ordutegian.
  - Arauen errespetua talde-lanean integratuz.
- Ordena eta zorrotasuna lanean:
  - Ardura ematen dizkieten aginduetan, hauen interpretazioan nahiz exekuzioan:
  - Egiten duen lanean erantzukizuna izatea uneoro.
  - Lanaren garapenean kalitatea zaintzeko konpromisoa.
  - Ekimena eta izaera kritikoa prozeduretan aldagaiak ezartzerakoan.
  - Autonomia lanak egiteko orduan.

### III. multzoa: PRODUKTUAK JASOTZEA, KONTROLATZEA ETA BILTEGIRATZEA OSTALARITZAREN ESPARRUAN

#### Prozedurazkoak:

- Jeneroak jasotzea eta kontrolatzea:
  - Sukaldaritzako jeneroen eta produktuen kalitateari dagozkion ezaugarrien identifikazioa.
  - Jeneroen kontrolerako oinarrikoak diren ekipoen eta tresnen erabilera.
  - Jeneroak jasotzeko eta kontrolatzeko eragiketak egitea.
  - Jasotze-eragiketetan higienari eta osasunari buruzko arategia aplikatzea.
- Biltegiratzeko eta entregak egiteko eragiketen exekuzioa:
  - Jeneroen biltegiratze-beharren identifikazioa.
  - Jeneroen biltegiratze-beharra eta biltegiratzeko tokiak erlazionatzea.
  - Jeneroak antolatze eta banatzeko eragiketak egitea.
  - Biltegiratzerakoan egoera txarrean dauden jeneroak edo kontsumi ezin daitezkeenak detektatzea.
  - Biltegiaren kontrolerako oharrak jasotzea.

#### Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Jeneroak jasotzeko eta kontrolatzeko metodoak: faseak. Departamentuen arteko erlazioak. Ekipoak eta tresnak: hauek erabiltzeko arauak. Mantentzea.
- Biltegiratzeko sistemak: tokiak eta instalazioak. Sailkapena. Funtzioak. Mantentzea. Kontrolerako oinarriko dokumentazioa. Kudeaketa-eskemak eta inbentarioen balorazioa.

#### Jarrerazkoak:

- Ostalaritzaren esparruan ezarritako prozeduren eta arauen errespetua:
  - Higienaren arauak kontuan izanik (norberaren garbitasuna, lanerako jantziak etab.), norberaren itxura zaintzea.
  - Puntueltasuna ordutegian.
  - Arauen errespetua talde-lanean integratuz.
- Ordena eta zorrotasuna lanean:
  - Ardura ematen dizkieten aginduetan, hauen interpretazioan nahiz exekuzioan.
  - Egiten duen lanean erantzukizuna izatea uneoro.
  - Zehaztasuna kalkulu eta kontroletan.
- Lanaren garapenean kalitatea zaintzeko konpromisoa.
- Ekimena eta izaera kritikoa aldagaien ekarpenen.
- Autonomia lanak egiteko orduan.

### 2. lanbide-modulua. ELIKAGAIEN AURRETIAZKO ELABORAZIOA ETA KONTSERBAZIOA

#### a) Amaierako gaitasunak

Lanbide-modulu hau amaitzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

1. Sukaldeko departamentuetako oinarriko zuzkidura osatzen duten ekipoen, makinak, tresnak eta erremintak erabiltzea, hauen aplikazioaren arabera eta errendimendu onena lortuz.
2. Sukaldean gehien erabiltzen diren elikaduraren esparruko lehengaiak aztertzea, mota desberdinak eta ezaugarriak deskribatuz eta elaborazioaren edo kontserbazioaren prozesuan batu behar diren sukaldaritzako faktoreak edo parametroak identifikatuz.
3. Sukaldaritzako jenero desberdinen aurretiazko elaborazioaren eragiketak deskribatzea eta egitea.
4. Jenero gordinak, erdilanduak eta amaitutako sukaldaritzako elaborazioak kontserbatzeko eta ontziratze metodoak aplikatzea eta horretarako ekipoen modu egokian erabiltzea.
5. Produkzio-unitateei eta/edo elikagai eta edarien zerbitzuari dagozkien higienari eta osasunari buruzko arauak eta baldintzak aztertzea eta dagozkien arauak eta metodoak aplikatzea.

#### b) Ebaluazio-irizpideak

1. Sukaldeko departamentuetako oinarrizko zuzkidura osatzen duten ekipoak, makinak, tresnak eta erremintak erabiltzean, hauen aplikazioaren arabera eta errendimendu onena lortuz, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Tresnak eta erremintak deskribatzea eta, era berean, sukaldeko ekipoak eta makineria osatzen duten elementuak ere bai, honako hauek azalduz:
  - Funtzioak
  - Erabiltzeko moduak
  - Lortzen diren emaitza kuantitatiboak eta kualitatiboak
  - Maneiarekin lotutako arriskuak
  - Erabiltzeko beharrezkoa den mantentzea
- Tresnen, erreminten, ekipoen eta makineriaren erabilera azaltzea, jenero-motaren, jasotako aginduen eta produkzioaren bolumenaren arabera.
- Erabiltzeko beharrezkoa den mantentze egokia egitea emandako edo jasotako aginduen bidez eta probak eginez ondo dabilela egiaztatuz.
- Sukaldeko ekipoak, makinak eta tresnak erabiltzeko arauak aplikatzea, arriskuak saihesteko eta aurrez zehaztutako emaitzak lortzeko ezarritako prozedurak jarraituz.

2. Sukaldean gehien erabiltzen diren elikaduraren esparruko lehengaiak aztertzean, mota desberdinak eta ezaugarriak deskribatuz eta elaborazioaren edo kontserbazioaren prozesuan batu behar diren sukaldaritzako faktoreak edo parametroak identifikatuz, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Elikaduraren esparruko lehengaiak identifikatzea eta deskribatzea, berorien ezaugarri fisikoak (forma, kolorea, neurria, etab.), ezaugarri gastronomikoak (sukaldaritzako oinarrizko aplikazioak), aurretiazko elaborazioaren oinarrizko beharrak eta kontserbaziorako baldintzak deskribatuz.
- Sukaldaritzako lehengaiak aurkezteko eta merkaturatzeko ohiko formulak deskribatzea, kalitateak, ezaugarriak eta leheneratzeko eta kontserbatzeko beharrak adieraziz.
- Kontserbazio-beharretarako toki egokiak eta sukaldaritzako lehengaiak leheneratzeko beharretara aplika daitezkeen teknikak identifikatzea.

3. Sukaldaritzako jenero desberdinen aurretiazko elaboraziorako eragiketak deskribatzean eta egitean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Sukaldaritzako elaborazioetan erabilitako jenero desberdinekin lotutako ebakitzeko moduak edo pieza arruntenak eta izen berezia dutenak deskribatzea eta sailkatzea, merkataritza-ezaugarriak eta sukaldaritzako aplikazioak adieraziz.
- Euren egoeraren arabera eta aurretiazko elaborazioa egin ahal izateko, lehengaiak behar dituzten leheneratzeko eragiketak egitea.
- Edozein jeneroren aurretiazko elaborazioa egiteko beharrak ondorioztatzea, sukaldaritzako aplikazio zehatzen eta/edo produkzio- edo merkaturatze-plan zehatzaren arabera.
- Lanerako tresnak, erremintak eta ekipoak aukeratzea, egingo diren aurretiazko elaborazioak kontuan izanik.
- Lanerako plan zehatz bat egiteko beharrezkoak diren aurretiazko elaborazioak egitea, erabilitako jeneroen jatorria kontuan izanik.
- Neurri zuzentzaileak proposatzea, lortu nahi den kalitate-maila eskuratzeko aurretiazko elaborazioak egiteko eragiketetan lortutako emaitzen arabera.
- Aurretiaz elaboratutako produktuak kontserbatzeko metodoa eta tokia justifikatzea, esleitutako destinoa edo kontsumoa, berezko ezaugarriak eta higienari eta osasunari buruzko arauak kontuan izanik.

4. Jenero gordinak, erdilanduak eta amaitutako sukaldaritzako elaborazioak kontserbatzeko eta ontziratzeke metodoak aplikatzean eta horretarako ekipoak modu egokian erabiltzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Kontserbaziorako eta ontziratzeko metodo desberdinak bereiztea eta deskribatzea.
- Produktu gordinek, erdilanduek eta sukaldaritzako elaborazioek behar dituzten eragiketa osagarriak bereiztea, aukeratutako metodoaren edo ekipoaren, jasotako aginduen eta esleitutako destinoaren edo kontsumoaren arabera.
- Jenero-mota desberdinen kontserbazio-prozesurako beharrezkoak diren eragiketak egitea.
- Eragiketa bakoitzaren bitarteko eta amaierako emaitzak ebaluatzeko ezarritako kontrol-arauak aplikatzea, aurrez zehaztutako kalitate-maila izango duen produktua lortu ahal izateko.
- Lortutako produktuak kontserbatzeko tokia justifikatzea, esleitutako destinoa edo kontsumoa, aukeratutako sistematik ondorioztatutako ezaugarriak eta higienari eta osasunari buruzko arautegia kontuan hartuz.

5. Produkzio-unitateei eta/edo elikagai eta edarien zerbitzuari dagozkien higienari eta osasunari buruzko arauak eta baldintzak aztertzean eta dagozkion arauak eta metodoak aplikatzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Instalazioekin, lokalekin, tresneriarekin eta sukaldaritzako produktuen maneiuarekin erlazionatutako higienari eta osasunari buruzko bete beharrekiko arauak identifikatzea eta interpretatzea.
- Euren etiketak interpretatuz, garbitzeko produktuak eta tresnak sailkatzea berorien aplikazioen arabera, eta ezaugarriak, abantailak eta erabiltzeko moduak azaltzea.
- Elikadura-arrisku eta -toxikapen arruntenak sailkatzea eta azaltzea, berorien kausak identifikatuz.
- Ekipoak, makinak, tresnak eta jeneroak erabiltzerakoan eta instalazioak garbitzerakoan higienari eta osasunari buruzko arauak betetzea eta garbitzeko eta antolatze metodoak zuzen aplikatzea.

c) Edukiak

## I. multzoa: AURRETIAZKO ELABORAZIOAK

Prozedurazkoak:

- Sukaldeko departamentuetako tresnen, erreminten, ekipoen eta makineriaren analisia.
- Sukaldaritzako edozein jeneroren aurretiazko elaborazioa egiteko dauden beharren dedukzioa ondorengo baldintzen arabera:
  - Izango duen sukaldaritzako aplikazioa.
  - Produkzio-plana.
- Lanerako plan zehatz baterako beharrezkoak diren aurretiazko elaborazioen exekuzioa.
- Gehien erabiltzen diren eta izen berezia duten ebakitzeko modu edo piezen analisia eta sailkapena.
- Aurretiazko elaborazioan emaitzak ebaluatzeko kontrolerako arauen aplikazioa, aurretik zehaztutako kalitate-mailaren arabera.
- Leheneratzeko eragiketen exekuzioa honako baldintza hauek kontuan izanik:
  - Jeneroaren hasierako egoera.
  - Gero izango duen aurretiazko elaborazioa.
- Garbitzeko eta tresnen, erreminten, ekipoen eta makineriaren mantentzerako eragiketak egitea higienari eta osasunari buruzko arautegiaren arabera.
- Garbitzeko produktu desberdinen sailkapena eta interpretazioa aplikazioen eta erabiltzeko moduen arabera.

Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Sukaldeko departamentuetako ekipoak, makinak eta tresnak: funtzioak. Erabiltzeko moduak. Lortzen diren emaitzak. Horiekin lotutako arriskuak. Mantentzea.
- Pieza edo ebakitzeko modu arruntenak, izen berezia dutenak: merkataritza-ezaugarriak. Sukaldaritzako aplikazioak.
- Aurretiaz elaboratzeko teknika honako hauen arabera:
  - Jenero-mota
  - Geroko sukaldaritzako aplikazioa
  - Produkzio-plana
  - Neurri zuzentzaileak

- Leheneratzea honako hauen arabera: jeneroaren egoera. Aurretiazko elaboraziorako beharrak.
- Higienari eta osasunari buruzko arautegia honako esparruetan:
  - Lokalak eta instalazioak
  - Tresneria
  - Jeneroen maneia
- Garbitzeko produktuak eta tresnak: etiketa jartzea. Aplikazioak. Ezaugarriak. Erabiltzeko moduak.

#### Jarrerazkoak:

- Aipatutako eremuan ezarritako prozeduren, protokoloen eta arauen errespetua:
  - Higienaren arauak kontuan izanik (norberaren garbitasuna, lanerako jantziak, etab.), norberaren itxura zaintzea.
  - Puntualtasuna ordutegian.
  - Arauen errespetua talde-lanean integratuz.
  - Lankideen, bezeroen, hornitzaileen eta abarren aurrean tratu sozial eta komunikazio egokia eta errespetuzkoa.
- Ordena eta zorrotasuna lanean:
  - Ardura ematen dizkieten aginduetan, hauen interpretazioan nahiz exekuzioan.
  - Lanpostua edo lantokia modu eraginkorren antolatze eta mantentze gaitasuna.
  - Egiten duen lanean erantzukizuna izatea uneoro.
  - Lanaren garapenean kalitatea zaintzeko konpromisoa.
  - Ekimena eta izaera kritikoa aldagaien edo alternatiben ekarpenen.
  - Autonomia lanak egiteko orduan.
  - Dagokion mailan, hala eskatzen duten egoera edo arazoaren aurrean erabaki koherenteak hartzeko gaitasuna.
  - Beste establezimendu batzuetako joerak eta produzitzeko eta merkaturatzeko moduak behatzeko interesa.

## II. multzoa: KONTSERBAZIOA

#### Prozedurazkoak:

- Kontserbaziorako metodoen eta ekipoen bereizketa eta deskripzioa.
- Kontserbazio-prozesurako beharrezkoak diren eragiketen exekuzioa.
- Emaizak ebaluatzeko kontrolerako arauen aplikazioa, aurretik zehaztutako kalitate-mailaren arabera.
- Lortutako produktuak kontserbatzeko tokien justifikazioa honako hauek kontuan izanik:
  - Esleitutako destinoa/kontsumoa.
  - Higienari eta osasunari buruzko arautegia.

#### Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Kontserbatzeko metodoak:
  - Motak
  - Emaizarekin erlazionatutako teknikak
  - Metodoarekin erlazionatutako ekipoak
  - Kontserbazioa aurrera eramateko tokiak
- Kontserbazioaren kontrolerako arauak, ondorengoak ebaluatzeko:
  - Bitarteko eta amaierako emaitzak.
  - Aurrez zehaztutako kalitate-mailak.
- Elikagaien kontserbazioaren esparruan higienari eta osasunari buruzko arautegia.

#### Jarrerazkoak:

- Aipatutako eremuan ezarritako prozeduren, protokoloen eta arauen errespetua:
  - Higienaren arauak kontuan izanik (norberaren garbitasuna, lanerako jantziak, etab.), norberaren itxura zaintzea.
  - Puntualtasuna ordutegian.
  - Arauen errespetua talde-lanean integratuz.
  - Lankideen, bezeroen, hornitzaileen eta abarren aurrean tratu sozial eta komunikazio egokia eta errespetuzkoa.
- Ordena eta zorrotasuna lanean:

- Ardura ematen dizkioten aginduetan, hauen interpretazioan nahiz exekuzioan.
- Lanpostua edo lantokia modu eraginkorrean antolatzeko eta mantentzeko gaitasuna.
- Egiten duen lanean erantzukizuna izatea uneoro.
- Lanaren garapenean kalitatea zaintzeko konpromisoa.
- Ekimena eta izaera kritikoa aldagaien edo alternatiben ekarpenean.
- Autonomia lanak egiteko orduan.
- Dagokion mailan, hala eskatzen duten egoera edo arazoan aurrean erabaki koherenteak hartzeko gaitasuna.
- Beste establezimendu batzuetako joerak eta produzitzeko eta merkaturatzeko moduak behatzeko interesa.

### III. multzoa: SUKALDARITZAKO JENEROAK

#### Prozedurazkoak:

- Lehengai desberdinen identifikazioa eta deskribapena honako hauen bitartez:
  - Ezaugarri fisikoak adieraztea.
  - Aurretiazko elaborazioen beharrak ondorioztatzea.
  - Kontserbatzeko edo biltegitratzeko sistema ondorioztatzea.
- Lehengai desberdinak aurkezteko eta merkaturatzeko formulen analisia.
- Elikadura-toxikapen arruntenen sailkapena eta interpretazioa, beroriek sortzen dituzten arrazoiak eta prebentzioa ondorioztatuz.

#### Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Lehengaiak:
  - Elikagai-multzoak.
  - Ezaugarri fisikoak.
  - Nolakotasun organoleptikoak.
  - Kalitatea eta merkaturatzea.
- Elikadura-toxikapenak. Toxikapen arruntenen azterketa, berorien arrazoiak eta prebentzioa.

#### Jarrerazkoak:

- Aipatutako eremuan ezarritako prozeduren, protokoloen eta arauen errespetua:
  - Higienearen arauak kontuan izanik (norberaren garbitasuna, lanerako jantziak, etab.), norberaren itxura zaintzea.
  - Puntueltasuna ordutegian.
  - Arauen errespetua talde-lanean integratuz.
  - Lankideen, bezeroen, hornitzaileen eta abarren aurrean tratu sozial eta komunikazio egokia eta errespetuzkoa.
- Ordena eta zorrotasuna lanean:
  - Ardura ematen dizkioten aginduetan, hauen interpretazioan nahiz exekuzioan.
  - Lanpostua edo lantokia modu eraginkorrean antolatzeko eta mantentzeko gaitasuna.
  - Egiten duen lanean erantzukizuna izatea uneoro.
  - Lanaren garapenean kalitatea zaintzeko konpromisoa.
  - Ekimena eta izaera kritikoa aldagaien edo alternatiben ekarpenean.
  - Autonomia lanak egiteko orduan.
  - Dagokion mailan, hala eskatzen duten egoera edo arazoan aurrean erabaki koherenteak hartzeko gaitasuna.
  - Beste establezimendu batzuetako joerak eta produzitzeko eta merkaturatzeko moduak behatzeko interesa.

### 3. lanbide-modulua. SUKALDARITZAKO TEKNIKAK

#### a) Amaierako gaitasunak

Lanbide-modulu hau amaitzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

1. Aplikazio anitzeko oinarrizko elaborazioen exekuziorako eta/edo, beharrezkoa izanez gero, kontserbaziorako prozesua aztertze, egokitzeko eta egiteko.
2. Jeneroen eta aplikazio anitzeko oinarrizko elaborazioen barne-hornikuntzaren prozesua garatzeko aurrez zehaztutako eskaintza gastronomikoen edo lanerako planen arabera.
3. Sukaldaritzako eta/edo, beharrezkoa izanez gero, kontserbaziorako oinarrizko teknikak aztertze, egokitzeko eta aplikatzeko sukaldaritzako oinarrizko elaborazioak lortu ahal izateko.
4. Sukaldaritzako elaborazioek behar dituzten leheneratzeko prozesua aztertze, egokitzeko eta egiteko.
5. Sukaldaritzako elaborazioen akabera-lanak aztertze eta egiteko berorien definizioaren, egoeraren edo zerbitzu-motaren arabera, merkaturatze egokienari erantzun ahal izateko.

## b) Ebaluazio-irizpideak

1. Aplikazio anitzeko oinarrizko elaborazioen exekuziorako eta/edo, beharrezkoa izanez gero, kontserbaziorako prozesua aztertzean, egokitzean eta egitean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Sukaldaritzako oinarrizko elaborazioak deskribatzea, aplikazio arruntenen eta burutzapen-prozesuen arabera sailkatuz.
- Eskaintza gastronomikoetatik edo lanerako planetatik ondorioztatutako oinarrizko elaborazioen beharrak identifikatzea eta horiek elaboratzeko beharrezkoa den barne-hornikuntza edo lehengaiak ondorioztatzea.
- Aplikazio anitzeko oinarrizko elaborazioei aurre egiteko beharrezkoak diren tresnak, erremintak eta lanerako ekipoa aukeratzea.
- Oinarrizko elaborazioak lortzeko beharrezkoak diren eragiketak egitea eta zeregin horretan higienerari eta osasunari dagokionez maneiu egokia izatea, ezarritako ordenaren eta denboraren arabera eta ekipoa erabilera-arau eta/edo jasotako aginduen arabera erabiliz.
- Ezarritako kalitate-maila lortu ahal izateko, eragiketa bakoitzean lortutako emaitzen arabera neurri zuzentzaileak proposatzea.
- Lortutako produktuak kontserbatzeko metodoak eta/edo tokiak justifikatzea, esleitutako destinoa edo kontsumoa, berezko ezaugarriak eta higienerari eta osasunari buruzko arauak kontuan izanik.

2. Jeneroen eta aplikazio anitzeko oinarrizko elaborazioen barne-hornikuntzaren prozesua garatzean, aurrez zehaztutako eskaintza gastronomikoen edo lanerako planen arabera, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Eskaintza gastronomikoetatik edo lanerako plan zehaztetatik ondorioztatutako jeneroen eta oinarrizko elaborazioen beharrak deduzitzea eta kalkulatzea, kalitate-mailak zehaztuz.
- Dagokion departamentuetatik jeneroen barne-hornikuntza eskatzeko beharrezkoa den dokumentazioa osatzea.
- Higienerari eta osasunari buruzko arautegiaren arabera eta aurrez ezarritako ordenan eta denboran jeneroen hornikuntza egitea.
- Jeneroek sukaldaritzako elaborazioetan erabili ahal izateko behar dituzten leheneratzeko eragiketak egitea.
- Jeneroak biltzeko tokia justifikatzea, esleitutako destinoa edo kontsumoa, jasotako aginduak eta higienerari eta osasunari buruzko arauak kontuan izanik.

